

AZPEITIA'TAR JULENE (EUSKALZAINDIKOA)



Azpeitia'tar Julene sari bat jasotzen Peli Aldazabal'en omenaldian, Arrate'n.

Gaur, alkarrizketa onetan, Azpeitia tar Julene (euskaltzaiña) dogu gugaz, oso emakume jatorra, aberria ta euskeraren laguna, oso ospetsua euskal-munduan, beragana joan gara itaun batzuk egiteko ta guztiz pozik artu gaitu.

—Julene, nungoa zara?

—Zumaiarra nozu.

—Noiztik zagoz Euskaltzaindian?

—Enaz gogoratzen une onetan, baña 40 bat urte bai. Garai aretan sariketa bat agertu zan, Ni Burgos-aldean nengoan zigortuta ta andik idatzi neban eta sariketea irabazi neban beste lekaide bategaz, orduan, izendatu ninduan euskaltzaindikoa.

—Aizu Julene, esan dozu Burgos-aldean zigortuta egon ziñala, zer dala ta?

—«Educación Nacional» Ministroaren Bilbo'ko Ordezkarriak guzur galantak esan eban nire aurka. Esan eustan salaketa asko artzen ebezela, au dala ta, sei urte, sei illabete ta amabost egun emon nebazan Burgos'ko erri txiki batean, irolarik ez eukan erritxo batean «Anzo de Mena» izenekoa.

—Nundik sortu yatzun euskerarenganako maitetasuna?

—Beti izan dot maitetasun eta zaletasun ori, etxean, euskeraz baño ez genduan besterik entzuten, guraso maiteak euskeraz egiten eben beti, aititak iru itz baño ez ekiazan erderaz itz orrek «hasta la mar» ziran.

—Zenbat liburu idatzi dozuz?

—«Irakurri maite», «Amandrien altzoan» eta «Zuentzat», irurak umetxoentzako, eskoletan irakurteko. Idatzi onek euskera-errikoian egiñak dira, neuk erabiltzen dodan euskeran.

Lenengo idaztia «Irakurri Maite» bizkaieraz dago, liburu onen eralgi edo gastu guztiok Konde de Bilallonga Jaunak ordaindu ebazan.

—Baña ba dozu beste zeozer argitaratzeko ezta?

—Bai, gaztetxoentzako beste liburu bat eginda daukat, laster argitaratzeko uste dot, egia esan idazti au itzulpen bat da.

—Azkenengo idazti au, argitaratzeko daukazuna, zelako euskeraz argitaratuko dozu?

—Beste guztiak lez, erri-euskeraz.

—Izparringietan idatzi dozu?

—Guda baño len Euzkadi egunerokoan idazten neban astean bein, umeentzako, «Euzkotar umien alde» izenburuagaz.

—Zergaitik zure idazlanak beti izan dira gaztetxoentzako?

—Erantzuna erreza dozu: Ni maistra nazalako, ta gañera umeak asko gustatzen yatazalako.

—Orain, gura ba dozu, itun bat egingo dogu ZER aldizkariaren irakurle guztiakaz, begira: Gertu zagoz emendik aurrera gure aldizkari ontarako zerbait idazteko?

—Bai orixe! Ta pozik egin be!

—Eskerrikasko Julene ta gura dozun arte.